

III. ATALA. ELKARBIZITZARAKO ARAUAK

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

1. Elkarbizitzaren aldarrikapena

ELKARREKIN BIZI:

Beasain BHI-ko hezkuntza komunitateak, Elkarbizitza planaren atarian, ELKARBIZITZA ALDARRIKAPENA (DK020803) egiten du.

Elkarbizitza aldarrikapenaren arabera, ELKARREKIN BIZITZEN ikastea hezkuntza komunitate honen oinarrizko helburua denez, komunitateko agente guztien artean sortu daitezken arazoen aurrean sentsibilizazioa eta aurreikuspena landuko dira. Bakean eta errespetuan oinarritutako elkarbizitza sustatu arren, GATAZKA sor daitekeenez, BITARTEKARIAren irudia indartu eta KONPONKETA bultzako dira, ERRESPETUa oinarrizko helburua izanik, ERASOA ekidin eta DIZIPLINA ezarri.

2. Elkarbizitza Prozedura (PR0208) eta Elkarbizitza Behatokia (DK020804) (5.art.)

Beasain BHI ikastetxeak Elkarbizitza plana aurrera eramanez, Hezkuntza Proiektuan leku nabarmena izateaz gain, Urteko Planetan garatuko da. Bertan, 201/2008 Dekretuak ikasleen eskubide eta betebeharrak buruz ezarritakoa jaso eta sakontzeko zereginari helduko dio, planifikatu-egin-ebalatu-aldatu eskemari jarraituz.

3. Ikasleen eskubideen babesa (3.art.)

Ikasleek beren eskubideak baliatuko dituzte, beren betebeharrak betetzea eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak aintzat hartu eta errespetatzea muga izango delarik.

Hezkuntza-komunitateko kide guztiek, ikasleei dagokienez, Dekretuaren 6-20 artikuluetan bildu diren eskubideak aintzat hartu eta errespetatu behar dituzte.

Ikastetxeko gobernu-organoek eta irakasleek, nork bere eskumen-eremuan, ikasleen eskubideak egoki baliatzen direla eta betebeharrak zorrotz betetzen direla bermatuko dute, Dekretuan jaso eta AJA honetan zehaztutakoaren arabera.

4. Betebeharrak betetzeko bermea (4.art.)

Betebeharrak ez betetzea gutxienez jokabide desegokitzat hartuko da beti. Jokabide horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat eta elkar libizitza horri kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da

Ikasleen betebeharrak ez betetzeko jokabide guztiak lehenbailehen zuzenduko dira ezarritako prozedurak jarraituz.

Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, proportzionaltasuna zainduko dute, ikasleari entzun egingo zaio eta adiskidetzea eta kalteak konpontzeari emango zaio lehenetasuna. Lan honetan, besteak beste, BEASAIN B.H.I.n bitartekaritza-prozedurak erabiliko dira Bitartekaria izendatuz.

Ikasleen betebeharrak Dekretuaren 21-27 artikuluetan jasotakoak izango dira. Hauetan tipifikatu gabeko jokabideei ez zaie neurri zuzentzailerik ezarriko. Hala ere, Ikastetxeak, Dekretuaren 30.1.l., 31.1.n. eta 32.1.ñ. artikuluetan dioenari jarraituz, betebeharrak ez betetzeko jokabideen adibideak jaso ditzake.

5. Elkarbizitza arauen jakinarazpena

Beasain institutuak, ikasturte hasieran, hezkuntza-komunitate osoak zer jokabide zuzenduko diren jakin dezan, Antolakuntza eta Jarduera araudi honetan bildutako elkarbizitza-arauak ezagutzera eman edo gogoraziko dizkiete irakasle, ikasle, guraso eta langileei. Horretarako Urteko Planean zehaztuko den komunikazio sarea erabiliko da (4.2. art.)

II. KAPITULUA. IKASLEEN ESKUBIDEAK/IKASTETXEAREN BETEBEHARRAK

Irakasleek ikasleen eskubideak informatu, babestu eta laguntzea

Beasain B.H.I.ko irakasle eta langile ez-irakasle guztiek abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren bidez ikasleei aitortu zaizkien eskubideak babesten lagunduko dute. Horretarako, araudi honetan eta aginte-organoen jarraibideetan zehaztutakoari jarraituko diote.

Ikasturte hasieran zein eskubide eta zein betebeharrak dituzten jakiteko, informazio saioak antolatuko dira horretarako ezarritako prozedura erabiliz.

1. Hezkuntza integrala izateko eskubidea. (6.art.)

Ikastetxea kudeaketa sistema integratuaren markoan lanean ari denez, ikas-irakas jardueretan Programazioa prozeduran (PR0202) erabakitakoaren arabera jokatuko dute irakasleek hemen ezarritako prozedura eta arauak jarraituz. Programazio hauetan aparteko garrantzia emango zaio elkarrekin bizitzen ikasteari eta pertsona gisa garatzeari.

2. Arreta berehala jasotzeko eskubidea. (7.art.)

Tutoreek nahiz gainerako irakasleek hautematen badute ikasleren bat tratatu txarrak jasotzen ari dela edo, Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 7.2 eta 7.3 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, arriskuan edo babesik gabe dagoela, ikasketa-burua edo zuzendaria jakinaren gainean jarriko dute.

Irakasleek berdinkideen arteko tratatu txarrak prebenitu edo ahalik eta lasterren hauteman behar dituzte. Tratatu txarren arrastorik antzemanaz gero, zuzendaritza taldea jakinaren gainean jarriko dute berehala, egoki diren protokoloak aplikatu daitezkeen, Elkarbizitza prozeduran (PR0208) ezarritakoaren arabera.

3. Ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea. (8.art.)

a) Ikasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerako kideek haien ohorea, intimitatea eta irudi propioa babesteko eskubidea dute. Horrenbestez, Beasain B.H.I.ko aginte-organismoek, tutoreek eta irakasle guztiek babestu beharko dute ikasleen nahiz hezkuntza-komunitateko kideen eskubide hori. Zuzendaritza taldeak zenbait arau proposatuko dizkio Eskola Kontseiluari grabatzeko bideen, sakelako telefonoen eta, oro har, teknologia berrien erabilerari buruz. Eskola Kontseiluak, bere aldetik, arau proposatu horiek onartu ala ez aztertuko du. Aipatu berri ditugun arauen bidez, ikasgelan grabazioak egitea, argazkiak ateratzea, eta sakelako telefonoa erabiltzea galarazita egongo da.

b) Ikasgelatik kanpo –hau da, eraikinean edo eskola-barrutian– aipatu berri ditugunak erabiltzea baimentzen bada, egoki izan daitezkeen mugak ezarriko dira. Batera zein bestera, debekaturik egongo da hezkuntza-komunitateko kideren bati bere baimenik gabe argazkiak ateratzea edo hura filmatzea. Debekatuta egongo da ere hezkuntza-komunitateko kidearen baimenaz atera den argazkia edo egin den grabazioa interesdunaren baimenik gabe erabiltzea.

4. Errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiboa izateko eta erreklamazioak egiteko eskubidea. (9.art.)

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 16. artikuluan eta 201/2008 Dekretuan ezarritakoa betetze aldera, eta ikasleek beren errendimendu akademikoa objektiboki ebaluatua izateko duten eskubidea bermatze aldera Programazioa eta Ebaluazioa prozesuetan jasotakoari jarraituko zaio. Arau horrek ondoko printzipio hauek ditu oinarri: publikotasuna, informazioa eta gardentasuna. Prozesu horietan azaltzen den sistemaren bidez, bidenabar, ikasleek azken notaren aurrean erreklamazioak egiteko aukera izango dute. Hau bermatze aldera, Beasain

institutuko irakasleriak ikasturte hasieran irakasgai bakoitzaren edukiak, helburuak eta ebaluazio irizpideak idatzi eta jakitera emango dizkie ikasleei eta hauen gurasoei, hala eskatzen badute. Era berean, ikastetxeak prozedura zehatza ezarriko du kalifikazioak erreklamatzeko eta probak ikusteko.

5. Eskola eta Lanbide orientaziorako eskubidea. (10.art.)

Ikasleek, ikastetxean sartu aurretik, eskolari buruzko informazio nahikoa izango dute. Horretarako, ikastetxearen inguruko azalpenak emango zaizkie eta baita ikastetxea bera erakutsi ere. Ikastetxean sartzen direnetik, orientazio-zerbitzua emango zaie ikasle bakoitzaren trebetasun, gaitasun eta interesen arabera eta ez genero desberdintasunean edo bestelako zirkunstantzietan oinarrituta. Era berean, orientazio honek enpleguaren egoerari eta aurreikuspenei erreparatuko die. Hau dela eta inguruneke erakunde eta enpresa publiko zein pribatuekin harremanak izango ditu ikastetxeak.

Eskubide hau bermatzeko Orientazio-plan zehatza landuta du ikastetxeak, Orientazio prozeduran (PR0205) jasotzen dena.

6. Osotasun fisikoa nahiz morala eta nortasun eta duintasun pertsonalerako eskubidea (11. Art.)

Ikasleei errespetuzko tratua zor zaie. Horretarako, ez zaie tratu iraingarri edo laidogarririk emango. Jokabideren bat zuzendu behar zaienean, ez da neurri arbitrarioerik erabiliko eta helburu hezitzailea izango dute. Beraz, ez da neurri zuzentzaile fisikorik edo moralik ezarriko. Elkarbizitza prozeduran (PR0208) jasoko da.

Bestalde, ikasleen jarduera akademikoa segurtasun eta higiene-baldintza egokietan egingo da. Hau bermatzeko, Eskola-eremuaren barruan ez da inola ere, tabakoa, alkohola edo bestelako drogarik edukitzen, saltzen edo kontsumitzen utziko. Segurtasuna eta Higienea dokumentua.

7. Kontzientzi-askatasunerako eskubidea. (12.art.)

Ikastetxe honek ikasleen kontzientzia-askatasuna, sinesmen erlijioso, moral nahiz ideologikoak errespetatuko ditu. Aurrematrikula epeetan ikastetxeko hezkuntza proiektua jakinaraziko zaie eta erlijioa aukeratu edo ez aukeratzeko duten eskubidea bermatu. Era berean, ikastetxeko gobernu-organismoek irakaskuntzak manipulazio ideologikorik izan ez dezan zainduko dute. Orientazioa (PR0205) eta Programazioa prozeduran (PR0202) prozeduretan garatuko da.

8. Biltzeko eskubidea (13.art.)

Ikastetxeko aginte-organismoek ziurtatuko dute ikasleek biltzeko duten eskubidea. Alde horretatik, biltzeko eskubidea gauzatzea hezkuntza helburuarekin bat datorrela eta adintxikikoen babeserako Legeak ezartzen dituen aginduekin bat datorrela bermatuko da. Horretarako, pertsona bakarreko aginte-organismoek eskubide honetaz baliatzeko jarraitu beharreko prozeduraren arabera jokatuko dutela zainduko dute.

Biltzeko eskubidea betetze aldera, biltzeko eskubidea betetzearen ondorioz ikasle-talde batek derrigorrezko eskoletara edo bestelako jardueretara huts egitea erabakiko balu, ez da jokabide

okertzat hartuko eta ez zaio neurri zuzentzailerik ezarriko. Hau horrela izateko, ordea, eskoletara ez agertzea prozeduran jasotakoa zainduko da..

9. Idatzizko adierazpen askatasunaren eskubidea (14.art.)

1. Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuaren 14. artikulua ikasleei aitortzen dien adierazpen askatasunaren eskubidea gauzatzeko ikastetxeak honako prozedura erabiliko du:

a) Eskubide hori gauzatzeko modua, espazioak eta lekuak araututa daude. Horretarako panelak jarrita daude egoitza desberdinetan. Edozein kasutan, erakundeekiko eta hezkuntza-komunitateko kideenganako errespetua kontuan hartu beharko da.

b) Edonola ere, informazioa jendarteratzeko dauden lekuetan eta espazioetan jartzen den informazio orotan, informazioaren erantzule den pertsonaren, erakundearen, elkartearen zein taldearen izena agertuko da. Era berean, Elkarbizitza-printzipioak errespetatzen ez dituen informaziorik ez da jarriko

c) Gelen barruan eskolako jardueri buruzko informazioa bakarrik jar daiteke.

2. Aipatu arauak errespetatzen ez dituzten informazioak kendu egingo dira zuzendariaren edo ikasketa-buruaren aginduz, baita data iraungita dutenak eta izendatutako tokiz kanpo jartzen direnak ere.

10. Ikasleek elkartzeko duten eskubidea. (15.art.)

Ikastetxeak legalki eraturako ikasle-elkarteei elkartzeko tokiak erraztuko dizkie, beti ere bizitza akademikoa oztopatu gabe eta era egokian erabiltzen direla ziurtatuz.

11. Ikastetxeko bizitzan eta funtzionamenduan parte hartzeko eskubidea. (16.art.)

Ikasleek horretarako ikasturte hasieran ikasle-talde bakoitzeko ordezkaria eta ordezkari-ordea hautatuko dituzte. Gelako ordezkari hauek ordezkari batzarra eratuko dute eta hauen artetik, Eskola Kontseilurako dagozkien ordezkariak izendatuko dituzte, baita, Elkarbizitza-Behatokirako ordezkariak ere. Ikasleriaren partaidetza

12. Informazioa jasotzeko eskubidea. (17. Art.)

Ikastetxea eta bertako bizitzari buruz informatuta egote aldera, ikastetxeak komunikazio-bideak ezarriko ditu eta hauek sistematikoki erabiliko dira. Horretarako prozedura jakinak ezarriko dira Urteko Planean zeinetan zehaztuko diren denborak, moduak, gaiak...

13. Aukera berdintasunerako eskubidea. (18.art.)

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek laguntza jasotzeko eskubidea dute. Ikastetxe honetan Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak egonik, alde batetik, Zereginen Ikaskuntzarako Gela (ZIG) martxan da. Hezkuntza Sailak ezartzen du honen funtzionamendurako laguntza-politika. Beste batetik, errefortzu klaseak eskaintzen dira.

14. Gizarte-babeserako eskubidea (19.art.)

Ikastetxeak babes-neurriak hartu beharko dituzte berdinen arteko tratu txarren kasuetan eta bereziki es-kola-jazarpenen eta emakumeen aurkako erasoen kasu-etan. Beharrezkotzat jotzen badute, jazarleak ikastetxez aldatzea berehala proposatu dezakete edo, jazarpenaren biktimek nahiago badute eta hala eskatzen badute, bik-timak lekuz alda ditzakete. Nolanahi ere, behar duten laguntza psikologikoa jasotzeko eskubidea izango dute jazarpenaren biktimek. Elkarbizitza prozeduran (PRO208) zehaztuko da ikasturte bakoitzean honetarako egingo diren formazio eta ekintza saioak.

15. Ikasleen eskubideak errespetatzen direla bermea. (20.art.)

Ikasleek beren eskubideak zeintzuk diren jakin behar dute. Horretarako, ikasle berriak sartzen diren bakoitzean, ikastetxeak informazio saioak antolatuko ditu, horretarako zehaztu den komunikazio sarean.

III. KAPITULUA. IKASLEEN BETEBEHARRAK

Betebeharrak ez betetzea gutxienez jokabide desegokitzat hartuko da beti. Jokabide horrek hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea eta betebeharrak betetzea eragozten dien neurrian, ikastetxeko elkarbizitzaren aurkako jokabidetzat eta elkar libizitza horri kalte larria eragiten dion jokabidetzat hartuko da.

Neurri zuzentzaileek helburu hezigarria izango dute, proportzionaltasuna zainduko dute, ikasleari entzun egingo zaio eta adiskidetzea eta kalteak konpontzeari emango zaio lehentasuna.

1. Ikasteko betebeharra. (21.art.)

Ikaslearen betebeharra da bere gaitasun guztiak al bait gehien garatzeko ikastea eta ahalegina egitea. Hain zuzen ere, duintasunez bizitzeko, elkarrekin bizitzeko eta etorkizunean laneratzeko behar diren gaitasunak lortzearren, behar adinako lana egingo du eta behar den interesez; era berean, lan intelektualerako giro egokia sortzen eta giro horri eusten lagundu behar du, eta bere portaerarekin ez du eragozpenik sortuko gelan. Era berean, ikasleak behartuta daude azterketak eta ariketak egiten dituztenean zintzo jokatzera.

2. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko betebeharra. (22. art.)

Ikasle guztiak hartu behar dute parte prestakuntza-jardueretan, interesez jardunez, agintzen dizkieten lan pertsonalak eginez eta antolatzen diren lan-taldeetan lagunduz.

3. Bertaratzeko betebeharra. (23. art.)

1. Ikasleek egunero joan behar dute eskola-saioetara, puntualtasunez eta justifikatu gabeko absentziarik izan gabe, eta sartzeko nahiz irteteko ordutegiak errespetatu behar dituzte.

2. Honako hauek hartuko dira justifikatu gabeko bertaratze- eta puntualtasun-hutsegitez: ikasleak edo, ikaslea adingabea bada, haren gurasoek edo legezko or-dezkariek idazki bidez

arrazoizten ez dituztenak. Adin nagusien kasuan, eskubide hori baliatzekotan, gizartean ohikoak diren bideak erabiliko dira Horre-tarako, ikastetxean ezarritako arauen arabera onargarria den justifikazioa aurkeztuko da, Dekretu ho-netako 13.3 eta 14.3 artikuluetan ezarritakoaren aurka joan gabe.

4. Elkarbizitza errazteko betebeharra.(24.art.)

1.Ikasleek parte hartu eta laguntza eman behar dute ikastetxean eskolako elkarbizitza hobetzeko eta ikasteko giro egokia lortzeko, betiere ikaskideen hezkuntzarako eskubidea eta irakasleen agintaritza eta orientazioak errespetatuz.

2. Horretarako, ikasleek ikastetxeko Antolakuntza eta Jarduera Araudian edo Barne Araudian bildutako Elkarbizitza Arauak ezagutuko dituzte; irakasle eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak errespetatu behar dituzte, eta portaera egokia izan behar dute haiekin guztiekin, besteek beren eskubideak baliatzeko dituzten eskubideak urratu gabe, sortzen diren gatazkak konpontzeko metodo baketsuak soilik erabiliz, eta betiere ikaskideekiko tolerantziaz eta elkar-tasunez jokatzuz eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak baliatzea erraztuz.

3. Ikasleek elkarbizitzarentzat aurkakoak eta larriki kaltegarriak diren jokabideen neurri zuzentzaileak aplikatzen lagundu behar dute, zuzendariak edo, hala badagokio, instrukzioaz arduratzen den edozein irakaslek eskatzen dienean lekuko gisa deklaratzuz.

5. Norberaren kontzientzia-askatasuna errespetatzeko betebeharra. (25.art.)

1.Ikasleek hezkuntza-komunitateko kide guztien kontzientzia-askatasuna, erlijioaren eta moralaren arlo-ko sinesmenak, eta duintasuna, osotasuna eta intimitate-errespetatu behar dituzte, honako hauek arrazoiztat hartuta inolako diskriminaziorik egin gabe: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

2. Ikasleek beren ikaskideen erabakiak errespetatu beharko dituzte, ikaskideek adierazteko, biltzeko edo elkartzeko eskubide indibidualak modu kolektiboan baliatzeko ekintzetan parte hartu nahi ez dutenean.

3.Ikasleek ez dute hezkuntza-komunitateko kide bakar bat ere iraindu, mehatxatu edo difamatzeko inolako adierazpenik egingo.

4. Ikasleek, eskola-eremuan, ezin izango dute grabazio-baliabiderik erabili, salbu eta ikastetxeak programatutako jardueretan horrelako baliabideak erabili behar badira. Kasu horietan ere ezin izango dute hezkuntza-komunitateko inor grabatu hark nahi ez badu eta hartarako baimena esanbidez ematen ez badu.

6. Eskolako arauak errespetatzeko betebeharra.(26.art.)

1. Ikasleek, ordenamendu juridikoak hezkuntza-komunitateko gainerako kideei aitortzen dizkien eskubideez gain, ikastetxeko antolamenduko, elkarbizitzako eta diziplinako arauak ezagutu eta errespetatu behar dituzte, ikastetxearen Antolakuntza eta Jarduera Araudiko edo Barne Araudiko xedapenak osorik betez, ikastetxeko Hezkuntza Proiektua errespetatuz, eta, hala badagokio, ikastetxearen ideiak eta izaera errespetatuz, baita horrekin ados ez daudenean ere.

2. Ikasleek beren eskumenen arloan ikastetxeko gobernu-organoen erabakiak bete beharko dituzte, norberaren garbiketari eta norberaren gauzak, jantziak, tresnak edo aparatu elektronikoak erabili eta erakusteari buruzkoak barnean hartuta, eta, era berean, atsedendietan nahiz eskolaz kanpoko jardueretan eskola-eremutik kanpo egin daitezkeen irteerei buruzko eta irteeretan erakusten duten portaerari buruzko erabakiak ere bete beharko dituzte. Hau betetze aldera, matrikulatzerakoan, ikasleek irteera horiek baimentzeko, gurasoek edo legezko ordezkariak eskuratuko zaien idazkia sinatuta ekarriko dute Dekretu honetako 14.3 artikuluan ezarritakoaren aurka joan gabe.

3. Era berean, ikasleek irakasleen, hezkuntzako laguntzaileen nahiz legezko araudiak esleitu dizkien funtzioak gauzatzen ari diren ikastetxeko irakasle ez direnen jarraibideak bete beharko dituzte.

4. Ikastetxeak ezartzen dizkien hezkuntza-neurri zuzentzaileen barnean hartutako ekintzak betetzeko betebeharra dute ikasleek.

7. Instalazioak errespetatzeko betebeharra.(27.art.)

1. Ikasleek ikastetxeko ekipamenduak eta material didaktikoak zaintzeko eta egoki erabiltzeko betebeharra dute, ikastetxeko instalazioak, altzariak eta ekipamendu orokorra beren nolakotasunaren arabera eta beren helburuetarako erabiliz, eta, hala badagokio, irakaslearen edo irakasleak ez diren langileen jarraibideen arabera. Ez dute inola ere ikastetxeko ekipamendua baimenik gabe erabiliko ezarritakoak ez diren helburuetarako, ezta dagokion ordutegitik kanpo.

2. Ikasleek, baimenik gabe, ez diote kanpoko inori ikastetxean sartzeko aukera erraztuko, eta ez dira bidegabe sartu den inorekin ibiliko bertan. Ildo horretatik, legez eratu diren eta ikastetxean ezarri diren ikasle-elkartek ordezkatzten dituzten pertsonak ez dira ikastetxetik kanpoko pertsonatzat hartuko, betiere ordezkari gisa identifikatzen dituen dokumentazioa baldin badute eta elkarteko zuzendaritzari beren bisitaren berri eman badiote.

3. Ikasleek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzak errespetatu behar dituzte.

IV. KAPITULUA. BETEBEHARRAK EZ BETETZEA. NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. Printzipio orokorra

a) Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak zenbait betebeharrak ezarri dizkie ikasleei. Ikasleek betebeharrak horiek ez betetzea, gutxienez, jokabide desegokitzat hartuko da beti. Hutsegite hori, halaber, elkarbizitzaren kontrako jokabideak hartuko da, hau da, hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak betetzea galarazten badie; edo elkarbizitzari kalte larria eragiten diona haren bidez hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak zuzenean urratzen badie.

b) Betebeharrak horiek betetzen ez direla ikusten duen irakasleak esku hartu beharko du derrigor. Horrenbestez, elkarbizitzarekin bat ez datorren jokabidea zuzendu beharko du, betiere, arestian aipaturiko Dekretuan nahiz araudi honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

2. Zuzendu beharreko jokabideak (DK020805)

Ahalik eta lasterren zuzendu behar dira 201/2008 Dekretuak okertzat jo dituen jokabide guztiak, baita elkarbizitzaren kontrakoak edo Elkarbizitzari kalte larria eragiten diotenak ere. Neurri zuzentzaileak, ahal den neurrian, hezitzaileak izango dira, proportzionaltasuna zainduko dute eta adiskidetzat izango dute helburu. Prozesu honetan inolako diskriminaziorik gerta ez dadin zainduko da.

3. Jokabide desegokiak (DK020806)

a) Jokabide desegokitzat arestian aipaturiko Dekretuaren 30. artikuluan aipatu direnak hartuko dira.

b) Dekretu horretan jasotzen denaren arabera, ikaslea une horretan babespean duen irakasleak zuzenduko ditu jokabide desegokiak.

c) Ikasketa-buruak ezarriko du jarraitu beharreko prozedura. Prozedura hori indarreko arauarekin bat etorriko da beti. Era berean, jokabidea zuzentzeko ahozko ohartarazpena baino zerbait gehiago aplikatu behar bada, halaxe jakinarazi beharko zaio ikaslearen tutoreari.

4. Jokabide desegokiak eta hauek zuzentzeko neurriak

a) Justifikatu gabeko puntualtasun hutsegiteak.

Ikasleek garaiz joan beharko dute klaseetara. Berandu iritsiz gero irakasleari baimena eskatuko diote barrura sartzeko eta ezin izango dute bere ez etortzea atzerapen arrazoiak erabiliz zuzendu. (AJA, 49)

b) Justifikatu gabeko hutsegiteak.

Klaseetara etortzea derrigorrezkoa da. Ikasleen hutsegiteak, nola gaixotasunez hala beste edozein arrazoiz, beti zuzendu edo argitu beharko dira astebeteko epean, horretarako dauden inprimakiak idatzita eta gurasoak nahiz beraren legezko ordezkariak sinatuta ekarritik. Ikasleak irakasleari erakutsi eta agiria tutoreari emango dio honek gorde dezan.

c) Ikastetxeko instalazioei kalteak eragitea.

Ikastetxeko materialari edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei narriadurak eragitea, zabarkeriagatik gertatzen denean. Ikasleek material guztiak, nahiz ikastetxeokoak

nahiz beste komunitateko kideenak, zainduko dituzte txikiziorik gerta ez dadin. Zerbait txikitzen bada, erabilera desegokiarengatik, egin duenak ordainduko du.

d) Irakasleek edo agintari akademikoek agindutakoa ez betetzea. Betiere ikasleak haiek mespretxatzen eta iraintzen ez baditu edo diziplina nahita hausten ez badu; baita ikastetxeko gainerako langileek beren jardunean emandako aginduei jaramonik ez egitea ere.

e) Hezkuntza Komunitateko kideen aurkako adeitasunik ezako jarrera, keinu edo hitzak.

f) Ikastetxeko Gobernu Organoak bere eskumenen eremuan debekatutako ekipoak, materialak, jantziak edo aparatuak ikastetxera eramatea.

g) Ikastetxeko ekipamendua (elektronikoa, mekanikoa, telefonikoa, informatikoa edo edozein motatakoa) baimenik gabe edo baimendutakoak ez diren helburuetarako erabiltzea.

h) Ikastetxeko langileei gezurra esatea edo informazio faltsua ematea, betiere horrek hezkuntza-komunitateko inori kalterik eragiten ez badio.

i) Kalifikaziorako baliatuko diren azterketa, proba edo ariketetan kopiazea edo besteei norberarena kopiatzen erraztea, edo azterketa, proba edo ariketa horietan baimenduta ez dauden material edo aparatuak erabiltzea.

j) Hartarako baimenik ez dutenei ikastetxean sartzeko aukera erraztea edo haiekin sartzea, ikastetxeko Elkarbizitza-arauen edo Gobernu Organoen jarraibideen aurka.

k) Ikaskideen gauzak nahita erabiltzea, haien borondatearen aurka.

l) Norberaren betebeharren beste edozein ez-betetze, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzea galarazten, oztopatzen edo eragozten ez badie, eta jokabide hori ikastetxeko bizikidetzaren aurkako jokabide gisa edo bizikidetzara horri kalte larria eragiten dion jokabide gisa sailkatuta ez badago.

l.1.- Mugikorra eta antzeko tresnak gelan itzalita eta gordeta ez edukitzea, irakaslearen berriazko baimenik izan ezean.

l.2.- Eskola eremuaren barruan tabakoa kontsumitzea.

l.3.- Eskola eremua zikintzea.

Jokabide desegokiak eta hauek zuzentzeko neurriak izeneko atalean, d), e), f), g), h), i), j), k), eta l) puntuetan hartuko diren neurri zuzentzaileak, Jokabide desegokiak zuzentzeko neurriak izeneko dokumentuan adierazita daude. Dena den, neurri zuzentzaile hauek hartzeko garaian gogoan edukiko dira ondorengo puntu hauek:

a) Izandako jokabide desegokiari eta haren ondorioei buruzko hausnarketa.

b) Kaltetuak izan diren pertsonen aurrean jokabidea desegokia izan dela onartzea.

c) Jokabide-eredu egokiak ikasteko eta barneratzeko jarduerak egitea.

d) Jokabide desegokiaren nolakotasunarekin zeriku-sia duen zereginen bat egitea.

e) Zuzendariaren, ikasketa-buruaren edota une horre-tantxe ikastetxearen ardura duen zuzendaritza taldeko kideren baten aurrean agertzea.

5. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak eta hauek zuzentzeko neurriak

- Elkarbizitzaren aurkako jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 31. artikuluan aipatzen direnak dira.

- Elkarbizitzaren aurkako jokabiderik hautematen duen irakasleak, lehenik, aurkako jokabidea izan duen ikaslea ahoz ohartaraziko du. Ondoren, ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketa-buruak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien eta jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du, horretarako intzidentzia orria betez.

a) Ikastetxeetako kide bakarreko aginte-organoen edo irakasleen aginduak eta ikastetxeko gainerako langileek beren eginkizunen jardunean emandako aginduak ez betetzea, betiere horrekin batera diziplinarik eza agertzen bada edo irainak, mespretxuak, desafioak edo mehatxuak egiten badira.

b) Ikaskideen edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako mehatxuak edo irainak; betiere jokabide horiek ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dioten jokabide gisa sailkatuta ez badaude, baita honako hauek ere: hezkuntza-komunitateko gainerako kideen aurkako keinuak edo jarrerak, ezbairik gabe erasotzeko saiakeratzat edo mehatxutzat har daitezkeenak.

c) Azterketa-ereduak lapurtzea edo erantzunak kopiatzea, eta horiek guztiak hedatzea, saltzea edo erostea.

d) Noten buletinetan edo gurasoentzako edo legezko ordezkarietzako beste edozein dokumentutan edo jakinarazpenetan aldaketak egitea, eta, ikasle adingabeei dagokienez, dagokien hartzaileei ez ematea edo erantzunak aldatzea.

e) Kalteak eragitea bidegabeko erabileragatik ikastetxeko lokalei, altzariei, materialari edo dokumentuei, edo hezkuntza-komunitateko gainerako kideen gauzei, jokabide hori ikastetxeko bizikidetzari kalte larria eragiten dion jokabidea ez bada.

f) Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak edo Eskola Kontseiluak hartutako baliozko erabakiak nahita ez betetzea.

g) Pertsonak ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, baimena eman gabe grabazio-baliabideak erabiliz.

h) Beste edonori bere eskubidea baliatzeko aukera galaraztea, indarkeria erabili gabe, eta beste edonor bere borondatearen aurka zerbait egitera behartzea; betiere, indarkeriarik erabili gabe.

i) Ordena nahasten duten portaerak autobusean edo eskolako jangelan, bai bakarka bai taldean, eta, betiere, bizikidetzan kalte larria eragiten ez badute.

j) Hezkuntza-komunitateko edozein kiderengan lesio fisikoak eragin ditzaketen objektuak zuhurtziaz gabe erabiltzea.

k) Ikastetxeko langileei gezurra esatea, informazio faltsua ematea edo norberaren nortasuna ezkatzea, horren ondorioz hezkuntza-komunitateko beste kide batzuei kalte egiten bazaie.

l) Diskriminazioa dakarren edozein egintza edo jokabide, diskriminazio horren arrazoia edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial. Betiere bizikidetzan kalte larria eragiten duen jokabidetzat hartzen ez bada.

m) Aurreko artikuluan adierazitako jokabide desegokiren bat gehienez ere hiru aldiz egitea hiruhileko akademiko berean; betiere, aurreko biak zuzendu badira, eta, ikasle adingabeei dagokienez, gurasoei edo legezko ordezkariari jakinarazi bazaizkie.

n) Ikasleen betebeharrak ez betetzea dakarren beste edozein jokabide, betiere hezkuntza-komunitateko gainerako kideei beren eskubideak baliatzeko edo beren betebeharrak betetzeko eragozpenik sortzen ez badie eta jokabide hori hurrengo artikuluan jasota ez badago, ikastetxeko elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideen artean, hain zuzen ere.

6. Elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak

- Elkarbizitzari kalte larria eragiten dioten jokabideak Eskubideen eta Betebeharren Dekretuko 32. artikuluan aipatzen direnak dira.

- Elkarbizitzari kalte larria eragiten dion jokabidearen lekuko izan den irakasleak, lehenik, ahoz oharataraziko du elkarbizitzari kalte larria eragiten dion jokabidea izan duen ikaslea. Ondoren, ikasketa-buruarengana edo haren ordezkorengana joatea aginduko dio. Azkenik, ikasketa-buruak eta zuzendariak zehaztu duten prozedurari jarraiki, gertakarien nahiz jokabide okerra zuzentzeko berehala egin duenaren berri emango du, horretarako intzidentzia orria betez.

a) Ikastetxeetako gobernu-organoekiko edo beren eskumenak betetzen diharduten irakasleekiko diziplinarik ezako egintza edo obediencia-ukatzeko esplikitu guztiak, ezarritako neurri zuzentzaileak betetzeari uko egitea barne, baita hezkuntza-komunitateko kideen aurkako adierazpen oso laido garri edo iraingarriak ere, laido edo irain horiek edozein modutan adierazita ere: ahoz, idazki bidez, edo baliabide informatikoak edo ikus-entzunezkoak erabiliz.

b) Diskriminazioa dakarten edo adierazten duten irainak erabiltzea, diskriminazio horren arrazoa edozein izanik ere: jaiotza, adina, arraza, sexua, egoera zibila, orientazio sexuala, gaitasun fisikoa edo psikikoa, osasun-egoera, hizkuntza, kultura, erlijioa, sinesmena, ideologia, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal, ekonomiko edo sozial.

c) Jazarpen sexista, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoak, ezarritako definizioa aintzat hartuta: nahi ez duen pertsona batekin eta pertsona horren sexua dela-eta, hitzez, hitzik gabe edo fisikoki edozein jokabide izatea, eta horren helburua edo ondorioa pertsona horren duintasunari erasotzea edo kikilduta, etsai, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea bada.

d) Hezkuntza-komunitateko edozein kideren aurkako eraso fisiko edo psikologikoa.

e) Ikastetxeko hezkuntza-komunitateko kideak beren osasunerako eta osotasun pertsonalerako oso kaltegarriak diren jokaerak egitera bultzatzea, hala nola tabakoa, alkohola edo drogak kontsumitzera bultzatzea.

f) Bizikidetzaren aurkako jokabide guztiak, taldean egiten direnean edo haien berri nahita zabaltzen denean, ahoz, idazki bidez, ikus-entzunezko baliabideen edo baliabide informatikoen bidez; baita berdinen arteko tratu txarreko egoeretan parte hartzen dutenean ere.

g) Liskar edo jokabide erasokorrak eragitea edo jokabide horietan parte hartzea, betiere lesioak eragiteko arrisku larria sortzen bada.

h) Nahita kalteak eragitea ikastetxearen instalazioetan edo ondasunetan, ikastetxeko langileei, beste ikasle batzuei edo beste pertsona batzuei, bai bakarka. bai taldean.

i) Ordena nahasten duten jokabideak autobusean edo eskolako jangelan; betiere, hezkuntza-komunitateko edozein kiderentzako egoera arriskutsuak sortzen badituzte.

j) Grabazio-baliabideak erabiliz, besteek ohorerako, intimitaterako eta irudi propiorako duten eskubidea ez errespetatzea, aldeztatik haiek, edo, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak, horrelakorik nahi ez dutela esanbidez adierazi badute.

k) Ikastetxeko jarduneko egintzetan, beste edonoren izena erabilia aritzea.

l) Euskarri idatzian edo informatikoan dagoen eskolako dokumenturen bat edo erregistroren bat kaltetzea, truketzea edo aldatzea, baita dokumentu akademikoak ezkatzea edo baimenik gabe ateratzea ere.

m) Delitua edo zigor-arloko hutsegitea den edozein egintza, nahita egin bada.

n) Ikasturte berean gehienez ere hiru aldiz egitea aurreko artikuluan adierazitako bizikidetzaren aurkako edozein jokabide, artikuluko horren 1.m) idatz-zatian bildutakoa izan ezik, betiere aurreko biak zuzendu badira eta, hala badagokio, gurasoei edo legezko ordezkariak jakinarazi bazaizkie.

ñ) Norberaren betebeharrak ez betetzea dakarren edozein jokabide, betiere jokabide hori hezkuntza-komunitateko gainerako kideen edo beste edonoren eskubideen aurkakoa bada zuzenean; hain zuzen ere, honako eskubide hauen aurkakoa bada: osasunerako, osotasun fisikorako, adierazpen-askatasunerako, parte hartzeko, biltzeko, diskriminaziorik ez jasateko, ohorerako, intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideena.

V. KAPITULUA. NEURRI ZUZENTZAILEAK APLIKATZEKO IRIZPIDEAK.

Elkarbizitzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan aurreikusi dena aplikatuko da. Gatazka ebazteko, 201/2008 Dekretuko III. kapituluan aurreikusi diren aukerako bideak erabili behar dira.

1. Neurri zuzentzaileak proportzionaltasunez aplikatzen direla bermatzeko irizpideak (41. artikulua)

Ezin dira aplikatu Dekretuak aitortutako eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak, baldin eta ez badira aintzat hartzen, aurretiaz, kasu bakoitzean ematen diren inguruabarrak. Berariaz, inguruabar hauek aztertu behar dira:

a) Zer-nolako kaltea eragiten duten jokabideek hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideen eta betebeharren egikaritzan.

b) Jokabide horiengatik edo horien ondorioz, hezkuntza-komunitateko gainerako kideek beren duintasunean edo agintean jasan duten kaltea edo jasan dezaketena.

c) Ikasleen jokabidean eragina duten inguruabar pertsonalak eta sozialak, behar bezala baloratzeko zer-nolako garrantzia duen haien betebeharren urrapenak eta 3.3. artikuluan adierazitako oinarrizko gaitasunetan izan ditzaketen gabeziak.

d) Jokabidearen ekintzak egiteko gertatu diren inguruabarrak.

2. Erantzukizuna arintzen duten inguruabarrak

a) Zuzentzea merezi duen jokabidea desagokitzat berehala onartzea.

b) Aurretiaz neurri zuzentzailerik jaso ez izana.

c) Materialari edo ondasun higigarriari edo higiezinei kalteak eragin bazaizkio, kalte horiek eskola-ordutik kanpo konpontzea, edo kalte horiek konpontzeko konpromisoa izenpetzea prozedura erabaki baino lehen.

d) Jendaurrean barkamena eskatzea.

e) Hain kalte larria eragiteko asmorik izan ez zuela erakustea.

f) Eraso fisikoen kasuan, kalte edo lesiorik ez eragitea.

3. Erantzukizuna larritzen duten inguruabarrak.

a) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteak honako ezaugarri hauek dituztenen aurka egiten direnean: adin txikiagokoak, minusbaliatuak, ahaldunen fisiko txikiagokoak, ikastetxera etorri berriak; edo nagusikeriaz jokatu izana adierazten duen beste edozein zirkunstantzia.

b) Hutsegitea nahita egina izatea (*).

c) Hutsegitea aldeztatik pentsatu (*) ondoren edo jakinaren gainean egitea.

d) Jokabidea zuzentzea eragin duten egite edo ez-egiteetarako taldean jardutera bultzatu edo akuilatu izana.

e) Eskola-arloko ordezkari-kargua gehiegikeriaz baliatzea, jokabidea zuzentzea eragin duten ekintzak egiteko.

o "Nahita": borondatez, intentzios, apropos egina.

o "Aldeztatik pentsatua": Bide hauetakoren batez adierazten dena: hutsegitea lasaitasunez, gogo irmoz eta aurretik pentsatuta egitea eta hutsegite-jarduerak behin eta berriz errepikatzea.

4. Jokabideak zuzentzeko bide alternatiboak (42., 43., 44., 45., 46., 47. eta 48. artikulua)

Eskubideen aurkako jokabideak zuzentzeko neurriak ez dira, behin erabakiak izan ondoren, finkoak eta mugiezinak izango, baldintza batzuk betez gero, neurri horiek eten, arindu edo kentzeko aukera izango baita. Hauek dira bide alternatiboak:

4.1. Xedapen orokorrak (42.art)

1. Ikastetxeko zuzendariak ahalegina egingo du elkarbizitza-arazoak konpontzeko, araututako prozedurak erabili gabe, eta, ahal dela, segidan adierazten diren bide alternatiboak erabilita.

2. Lehentasunez, zuzendariak ahalegina egingo du alde hauek adiskidetu daitezten: hezkuntza-komunitateko kideren bati eskubideak urratu dizkion ikaslea eta bere eskubideak urratuak ikusi dituen hezkuntza-komunitateko kidea. Horrez gain, eta, posible bada, sortutako kalte materialak edo moralak konpontzen ahaleginduko dira.

3. Bide horiek erabiliz zuzendu diren jokabideen berri eman behar zaie ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari.

4. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak, behin kapitulu honetan adierazitako bide alternatiboak erabilita zuzendu ondoren, ikasleak aurretik hutsegiteren bat egin duen ala ez jakiteko soilik jasoko dira ikastetxean.

4.2. Prozedurarik gabeko neurri zuzentzaileak (43. artikulua)

1. Elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak gertatzen badira, zuzendariak, inolako prozedurarik martxan jarri aurretik, ahalegina egingo du ikasleek jokabide horiek zuzen ditzaten, beren borondatez onartutako neurrien bidez, edo, egoerak hala eskatzen badu, haien gurasoek edo lege-ordezkariek onartutako neurrien bidez. Proposatutako neurriak onartzen badira, ez da prozedurarik abiatuko, edo, prozeduraren bat abiatuta badago, eten egingo da.

2. Ezingo da horrela jokatu, salbuespenezko egoera hauetan:

a) Adinez nagusiak diren ikasleak izan badira ikastetxearen elkarbizitzari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideak egin dituztenak.

b) 37. artikuluan adierazitako jokabideak eman badira.

c) Ikastetxean gutxienez bi aldiz egin bada ahalegina bide horietatik konpontzeko elkarbizitzaren aurkako jokabideak edo hari kalte larriak eragiten dizkietenak, eta ez bada erdietsi lortu nahi zen helburu hezitzailea. Zuzendu nahi izan diren jokabideak izaera berekoak izan behar dute.

4.3. Prozedura bertan behera uztea adiskidetzea gertatu delako.(44. artikulua)

a) Ikasleak onartzea hark egin duen jokabidea elkarbizitzaren aurkakoa dela edo elkarbizitzari kalte larria eragin diona, eta, berariaz, urratu egin dituela hezkuntza-komunitateko gainerako kideen eskubideak.

b) Ikasleak barkamena eskatzea edo azalpenak ematea.

c) Kaltetua izan den pertsonak, edo, kasuan-kasuan, ikastetxeko organo eskudunak barkamena onartzea.

d) Jarduera hezitzailearen bat egitea onartzea.

2. Adiskidetzeak ez du bertan behera utziko prozedura 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

4.4. Prozedura bertan behera uztea kaltea konpondu delako (45. Art.)

1. Prozedura bertan behera utziko da baldin eta konpondu egiten badira elkarbizitzaren aurkako jokabideen eta hari kalte larriak eragiten dizkieten jokabideen biktimak edo erakunde kaltetuek jasandako kalteak, edo haien konpontzeko konpromiso fidagarria hartzen bada. Konponketa horrek kalte materialak eta moralak konpondu behar ditu.

2. Kalteen konponketak edo haien konpontzeko konpromisoa hartzeak ez du etengo prozedura, baldin eta 37. artikuluan adierazitako jokabideren bat gertatu bada, baina, hala ere, arindu egingo ditu aplikatzekoak diren neurriak.

4.5. Prozedura bertan behera uztea jokabidea familia-eremuan zuzentzeagatik (46. Art.)

Prozedura bertan behera uzteko aukera izango da, baldin eta, zuzendariaren iritziz, jokabidea behar bezala zuzentzen ari bada familia-eremuan. Ezingo da halakorik egin, jokabidea 37. artikuluan adierazitakoren bat baldin bada.

4.6. Neurri zuzentzaileak eten, arindu edo barkatzea (47.art.)

1. Kaltetutako pertsonen entzun ondoren, aplikaturiko neurrien baldintzapeko etetea erabaki dezake zuzendariak, baita betetze aldia murriztea edo neurriak deuseztatzea ere, ofizioz edo interesdunak nahiz, azken hori adin txikikoa bada, bere lege-ordezkariek eskatuta; betiere, aldezturik, ikaslearen jarrera modu positiboan aldatu dela egiaztatuta beharko da.

2. Zuzendu beharreko jokabideak berriz gertatuz gero, berrerortzetzat hartuko da, neurri zuzentzailea bertan behera geratuta ere.

3. Jakinarazi egin behar zaie ikastetxeko Eskola Kontseiluari eta irakasleen klaustroari neurri zuzentzaileak bertan behera utzi direla arrazoi horiek direla medio.

4.7. Elkarbizitza-konpromiso hezigarriak (48. Art.)

1. Kasu guztietan, kaltetuek barkamena onartu ez dutelako, adiskidetzetik lortu ez denetan ere, neurri zuzentzaileen aplikazioa eten ahal izango da ikasle interesdunak elkarbizitza-konpromiso hezigarria sinatzen badu; ikaslea adingabea bada, gurasoek edo legezko ordezkariak ere sinatu beharko dute.

2. Elkarbizitza-konpromiso hezigarrietan, honako hauek bildu beharko dira, behar bezala zehaztuta, baita denboraren aldetik ere: elkarbizitzari buruzko prestakuntza-jardunak, eta elkarbizitzaren aurkako jokabideak aldatzeko eta horien prebentziorako gurasoek edo legezko ordezkariak, hartarako konpromisoa hartuta, gauzatuko dituztenak, eurek edo erakunde,

ikastetxe edo pertsona egokien bidez gauzatuko dituztenak, hain zuzen ere. Era berean, ikastetxearekin komunikatzeko eta koordinatzeko mekanismoak bildu beharko dira.

3. Ez badira betetzen elkarbizitza-konpromiso hezigarriak, berehala aplikatuko dira etendako neurri zuzentzaileak.

VI. KAPITULUA. ELKARBIZITZA-GATAZKAK IKASTETXEAN: JARDUERA ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

1. Ildo orokorrak. Prebentzioa.

1. Eskubideak urratzen dituzten jokabideen tratamenduari zentzu positiboa emango zaio, helburuetan eta jardueretan hezkuntza-prozesu antolatua goa, parte-hartzaile guztiak gehiago errespetatuko dituen eta emaitzetan eraginkorragoa izango dena lortzen laguntzeko.

2. Hortik abiatuta, ikastetxean elkarbizitza nahasten duten jokabideak berraztertu behar dira, hura kudeatzeko beharrezko jarduera zuzentzaileak egokitu, eta, jakina, hezkuntza-komunitateko kide guztien parte-hartzea lortu, haien ekarpena beti izango baita ezinbestekoa; gainera, estrategia berriak erabiliko dira, egungoen lagungarri eta osagarri izateaz gain, bidea eman dezaten gatazkak egungo gizarte-dinamiketatik hurbilago dagoen eran konpontzeko. Jardueren zehaztasuna eta eraginkortasuna oso lotuta dago haiek guztiak barneratuta dauden egitura argia izatearekin.

3. Tutoreak koordinatuta, talde bakoitzeko irakasleek osatuko dute ikasgelako gatazken prebentzioaz eta elkarbizitza-arauez lehenik arduratzen den hezkuntza-taldea. Ikastetxeko giro orokorra eta elkarbizitza hobetzen laguntzen duen gutzia prebentzio-neurritzat hartuko da. Jokabide-desorekak irakasleen lanaren bidez zuzenduko dira.

4. Elkarbizitzarako trebetasunak, curriculumeko beste edozein gaitasun edo eduki bezala, irakaskuntza-gai izango dira ikasgelako ohiko jarduera-esparruan.

Baliteke ikaslea zuzentzen ahalegintzeko zigorra baino ez erabiltzea eraginkorra ez izatea, horrekin batera, oinarrizko gizarte- eta hiritar-gaitasuna eta norberaren garapenerako eta autonomiarako gaitasuna lortzen laguntzeko, hezkuntza-prozesu sistematikoa erabiltzen ez bada.

5. Irakasleak, besteak beste, ikastetxean elkarbizitza-giro egokia sortzen eta mantentzen lagundu behar du, ikasleek ikasi, lan egin eta heldu daitezten.

2. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko prozedurak

Jokabide desagokiak, elkarbizitzaren kontrakoak edo elkarbizitzari kalte larria egiten diotenak zuzentzeko erabili beharreko prozeduraren aukeraketa xedapen orokorreari buruzko 49. artikuluan xedatutakoak zehazten du; 57. artikuluan Hitzezko Prozedura aipatzen da jokabide desagokiak zuzentzeko; 58-67 arteko artikuluek, berriz, Ohiko Prozeduraren erabilpena aipatzen dute, eta 68-80 artekoek Ohiz kanpoko Prozedurari buruzkoak dira.

Era berean, 201/2008 Dekretuaren kontrako jokabideak zuzentzeko prozeduren euskarri dokumentalak eskura daude erabiltzeko.

3. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko hitzezko prozedura

Kontuan hartuta 54. artikuluan ikasleari eta, ondorioz, haren gurasoei gaitzetsitako jokabidea jakinarazteaz xedatuta dagoena, eta agian 31.1.m artikulua aplikatuko denez, beharrezkoa da edozein ohartarazpen ikasleari eta haren aita-amei jakinaraztea. Jokatzeko modua eta oinarritzko dokumentazioa loturan adierazten direnak izango dira.

4. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko ohiko prozedura (DK020801).

Elkarbizitzaren kontrako jokabideak eta hari kalte larria eragiten diotenak zuzentzeko OHIKO PROZEDURARA eramango gaitu loturak.

Ohiko prozedura erabiltzeko, beharrezkoa izango da ekintzak nabarmenak izatea, bai zuzendu beharreko jokabidea, bai haien egilea.

Prozedura hori ofizioz hasi eta idatziz egingo da, eta, gutxienez, hasierako ekitaldia, ikasleak eta, hala egokituz gero, haren gurasoek edo legezko ordezkariak esan beharrezkoa entzutea eta amaierako ebazpena izango ditu.

5. Neurri zuzentzaileak aplikatzeko ezohiko prozedura (DK020802).

Ezohiko prozedura kasu hauetan aplikatuko da (68. art.):

- Kaltetunak edo hirugarren pertsonak egindako salaketaren bidez izan denean ustezko gertaeren berri.
- Gertaerak nabarmenak ez diren kasuetan.
- Zuzendariaren iritziz prozedura egokiena denean.

Har daitekeen neurri zuzentzaileak ikastetxez aldatzea dakarrenean. (37 art.).